



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25068 - Hezkuntzaren Psikologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetako edukien bitartez ikasleriak Hezkuntzaren Psikologia jakintzagaiaren eredu teorikoak ezagutu, eta hezkuntzaren psikologoak bere lana garatzen duen hezkuntza-testuinguru ezberdinetan hauen aplikazioa burutzeko gai izando da. Irakasgai honetan ikasleriak ekintza-prozedura bat garatzen du, hezkuntzaren psikologo gisa ikastetxe batean ikaskuntza-zailtasunak edo hezkuntza-beharrak dituen ikasle baten egoera bati aurre egiteko burutu beharko lukeena, hain zuzen.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren BERARIAZKO gaitasunak:

GB01 Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen oinarrian dauden eredu teoriko ezberdinak zeintzuk diren jakitea.

GB02 Testuinguru ezberdinetako hezkuntza-jarduerak ezagutu eta jarduera hauek burutzeko erabiltzen diren metodoak eta teknikak garapen-aldi bakoitzera egokitzen jakitea.

GB03 Hezkuntza-testuinguruetan esku-hartzeko diseinuak proposatzeko gaitasuna izatea.

GB04 Hezkuntza-testuinguruetara egokitutako eta modu aproposalaz azaldutako txostenak lantzen eta publikoki defendatzen jakitea.

GB05 Taldean lan egiten jakitea, eginbeharrak egiterakoan komunikazio, elkar-laguntza eta kooperazio prozesuak garatuz.

GB06 Egindakoaren inguruan hausnarketa kritikoa burutzen jakitea, egoera konkretuetan modu independentean lan egiteko gai izateko.

Irakasgaiaren ZEHARKAKO gaitasunak:

GZ01 Informazio- eta dokumentazio-iturri espezializatuetatik abiatuta, gai izatea psikologiari buruzko informazioa bilatu, kudeatu, eguneratu, hautatu, aztertu eta laburbiltzeko.

GZ02 Maila pertsonal, profesional eta zientifikoan harreman eta komunikazio eraginkorra izatea, eta gai izatea bakarka zein diziplina bakarreko eta diziplina anitzeko taldeetan lan egiteko, erantzukizunak beren gain hartzeko eta egindako jarduna kritikoki balioesteko.

GZ03 Psikologiaren lanbide-jardunbidea arautzen duen lege-esparrua ezagutzea, eta gai izatea printzipio etikoak eta odontologia-kodea aplikatzeko.

GZ04 Gai izatea autonomiaz ikasteko eta etengabe ikastearen garrantzia balioesteko, era horretan lanbidearen jardun egokirako beharrezkoak diren gaitasunak eta jakintzak eguneratuta izan ditzaten eta jakintza psikologikoan lagun dezaten.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. GAIA: HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA: SARRERA

• Hezkuntzaren Psikologiaren kontzeptua eta historia.

• Hezkuntzaren Psikologiaren edukiak, dimentsioak eta beste jakintzagaiekiko harremanak.

2. GAIA: HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAREN EREDU TEORIKOAK

• Teoria kognitiboak:

• Konstruktibismoa. Ikaskuntza genetiko-kognitiboa (Piaget).

• Ikaskuntza esanguratsua eta bereganatzearen teoria (Ausubel).

• Aurkikuntza bidezko ikaskuntza (Bruner).

• Ikaskuntzaren teoria sozio-kulturala (Vigotsky). Eredu dialogikoa-komunikatiboa.

3. GAIA: GIZABANAKOAREN BARNEKO ALDAGIAK ETA HEZKUNTZA.

• Ikaskuntza-estrategiak.

• Motibazioa eta hezkuntza.

• Adimen anitzak eta hezkuntza.

4. GAIA: GIZABANAKOEN ARTEKO ALDAGIAK ETA HEZKUNTZA.

• Berdinen arteko elkarrekintza.

• Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana.

METODOLOGIA

Gelako praktikek, tailerrek eta mintegiak irakasgai honen ikaskuntza-prozesuan funtzio garrantzitsua betetzen dute eta, ondorioz, baita irakasgaiaren ebaluaketan ere. Ezinbesteko baldintzak izango dira gelako praktikak, tailerrak eta mintegiak modu egokian burutzeko: saioetara etortzea, taldekide guztien parte-hartze gogotsua, programa teorikoaren edukiakin erlazio egokiak ezartzea eta, azkenik, irakasgaiaren metodologiari eustea.



Gelako praktika, tailer eta mintegietan kasuaren azterketaren metodologia erabiliko dugu, hau da, egoera konplexu erreale baten deskribapena egingo da, bizitzako egoeretan aurre egin beharreko gertaera arazotsuen inguruko eztabaida ahalbidetzen duelako. Metodologia honen helburua da ikasgelan jarrera eta pentsaera ezberdinen azalpena erraztea. Kasuaren metodoarekin ikasleriak bizitza errealeko egoeretan eta bizipenetan oinarrituz ikasten du.

Gaitasunen eskuratzea bermatzeko ondorengo eginbeharrak burutuko dira gelako praktika, tailer eta mintegietan:

- Irakurketak, informazioaren bilaketa eta testuen azterketa (1 eta 2 gaitasunak)
- Kasu praktikoaren ebazpena (3 eta 4 gaitasunak)
- Lan-taldeetako jarduerak eta ikaskuntza kooperatiboa (5 gaitasuna)
- Bideoen azterketa (1, 2 eta 3 gaitasunak)
- Talde-eztabaida bideratuak (6 gaitasunak).
- Norbere hausnarketa (4, 5 eta 6 gaitasunak)

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	18				8		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	27				12		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 30
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Banakako lanak % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 5

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa burutzeko bi aukera daude: a) ebaluazio jarraia edo b) azken ebaluazioa.

EBALUAZIO JARRAIA

Kasu honetan froga teorikoak eta praktikoak gainditu beharko dira.

Froga teorikoa: Eskola teorikoetan landutako edukien ezagutza eta bereganatzea ebaluatzeko ohiko azterketa teorikoa burutu beharko da. Irakasgaiaren nota osoaren %50 balioko du eta azterketa hau gainditzeko beharrezko nota 5/10 izango da.

Froga praktikoak: Irakasgaiaren nota osoaren %50 balioko dute. Eskola praktikoetan bereganatutako ezagutzen ebaluazio egiteko ondorengoak burutuko dira:

- Gelako praktikak: Irakasgaiaren nota osoaren %30 balioko dute. Oinarritzko hiru alderdi hartuko dira kontutan: a) bertaratzea eta parte-hartzea; b) azterketa praktikoak eta c) txosten psikoedukatiboa.
- Lantegiak eta mintegiak: Irakasgaiaren nota osoaren %20 balioko dute: Kasu honetan ere ebaluazioak oinarritzko hiru alderdi kontutan hartuko ditu: a) bertaratzea eta parte-hartzea; b) esku-hartze psiko-edukatiboaren diseinua eta c) mintegietako aurkezpena.

Irakasgaia gainditzeko hiru atalak gainditu beharko dira, hau da, 1) atal teorikoaren azterketa, 2) gelako praktikak, eta 3) lantegiak eta mintegiak.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

AZKEN EBALUAZIOA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio baten bidez ebaluatuak izateko, ebaluazio jarraian parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak ebaluazio jarraiari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Deialdiari uko egitean ikasleak ez-aurkeztuaren kalifikazioa jasoko du. Ebaluazio jarraia kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek, nahikoa izango dute azken proba horretara ez aurkeztea, irakasgaiaren azken kalifikazioa ez aurkeztua izan dadin.



Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko frogara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema jarraitua edo azken ebaluazioa izan, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko froga osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da. Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzok ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzok ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

Azkenik, ohiko deialdiko azterketa teorikoaren nota ikasturte bereko ezohiko deialdirako gordeko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Irakasgaiari dagozkion apunteak
- Irakasleak eskeinitako dokumentu eta testuak gelako praktketan eta tailerretan lantzeko
- E-gela Plataforma

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Coll, C. Palacios, J. y Marchesi, A. (2002). Desarrollo psicológico y Educación II. Psicología de la educación escolar. Alianza Editorial.
- Monreal, M. G. y Guitart, M. E. (2013). Consideraciones educativas de la perspectiva ecológica de Urie Bronfenbrenner. Contextos Educativos, 15, 79-92.
- Gil, P. (2013). Hezkuntzaren Psikologia. Teoria eta praktika. UPV/EHU.
- Gonzalez-Pienda, J. A., Cabanach, R., Núñez, J. C., y Valle, A. (2012). Manual de Psicología de la Educación. Pirámide.
- Sanctrock, J. W. (2011). Psicología de la educación. McGraw Hill.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Aierbe, A. (2008). Esku-hartze psikopedagogikoa garapenaren nahasteetan. Euskara Errektoreordetzaren sare argitalpena. <http://testubiltegia.ehu.es>
- Coll, C. y Martí, E. (2001). Aprendizaje y desarrollo: La concepción genético-cognitiva del aprendizaje. En C. Coll, J. Palacios y A. Marchesi (Eds.). Desarrollo psicológico y educación 2. Psicología de la Educación Escolar (pp. 67-86). Alianza.
- Domínguez, P. (1998). Inteligencia. En J.A. Bueno y C. Castanedo (Eds.). Psicología de la educación aplicada (pp. 135-166). CCS.
- Fernández-Martín, M.P. (1998). Teoría del procesamiento de la información. En J.A. Bueno y C. Castanedo (Eds.). Psicología de la educación aplicada (pp. 365-383). CCS.
- González-Cabanach, R., Valle, A., Núñez, J.C. y González-Pienda, J.A. (1996). Una aproximación teórica al concepto de metas académicas y su relación con la motivación escolar. Psicothema, 8, 45-61.
- González-Pienda, J.A., Núñez, J.C., Álvarez, L. y Soler, E. (2002). Estrategias de aprendizaje: Concepto, evaluación e intervención. Pirámide.
- González-Pienda, J.A., Núñez, J.C., González-Pumariega, S. y García, M. (1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. Psicothema, 9, 271-289.
- Rodrigo, M.J. y Correa, N. (2001). Representación y procesos cognitivos: Esquemas y modelos mentales. En C. Coll, J. Palacios y A. Marchesi (Eds.), Desarrollo psicológico y educación 2. Psicología de la Educación Escolar (pp. 117-135). Alianza.
- Sampascual (Ed.). Psicología de la Educación. Tomo I (pp. 97-126). UNED.
- Sampascual, G. (2001). Aplicaciones de los principios conductistas a la enseñanza. En G. Sampascual (Ed.), Psicología de la Educación. Tomo I (pp. 127-154). UNED.
- Valle, A., Núñez, J.C., Rodríguez, S. y González-Pumariega, S. (2002). La motivación académica. En J.A. González-Pienda, R. González-Cabanach, J.C. Núñez y A. Valle, Manual de Psicología de la Educación (pp. 117-144). Pirámide.
- Vega, M. (1998). El modelo conductista. En J.A. Bueno y C. Castanedo (Eds.), P

Aldizkariak

European Journal of Education and Psychology
Hik Hasi



Kaiera
Psicología Educativa
Revista de Educación
Revista de Psicodidáctica
Revista de Psicología de la Educación
Surgam. Revista de Orientación Psicopedagógica

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>
<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest>
<http://www.educacionyfp.gob.es/portada.html>
<http://www.mec.es/inf/comoinfo/infantil.htm>
<http://www.mec.es/educa/formacion-profesional/index.html>
<http://www.psicopedagogia.com>
<http://www.orientaline.com>
<http://www.oie.es/webibe.html>
<http://www.maseducativa.com>
<http://www.usal.es/biblioteca/psicoedu.htm>
[http:// www.rtve.es/television/redes](http://www.rtve.es/television/redes)

OHARRAK

ADENDUM ONLINE EBALUAZIOA

Ebaluazioa presentzialki egitea ezinezkoa balitz, bai irakasgaiaren atal teorikoari zein praktikoari dagozkion entregableak eta hauei dagozkien kalifikazioak mantentzen dira, ebaluazio jarraiaren kasuan eta azken ebaluazioaren kasuan baita ere.

Kasu guztietan Egelan eskuragarri dauden tresnak eta baliabideak erabiliko dira, beharrezko denbora frogen formatorak egokituz.